



ZERK KUTSATZEN DU GEHIEN?

Tabakoak inguruan eragiten duen kutsadura

Proposamena:

Ikusi guk proposatutako bideoa, eta jardun diesel motorrek eragindako kontaminazioaz eta zigarroak erretzean eragiten den kontaminazioaz hizketan.

Talde bakoitzerako gomendatutako garaia:

DBH 1 eta DBH 2 Ikasturteko edozein garaitan, aurreneko hiruhilekoan nahiz bigarrenkoan.

Beharrezko materiala:

 Bideo-proiektagailua.

Material lagungarria: Bideoa: “kamioa vs zigarroa”. Testua euskaraz eta gaztelaniaz dauka. Artikulu lagungarria.

Helburua:

Ikasleek partikulazko kutsadura zer den ikastea, eta zergatik den osasunerako txarra. Tabakoak kutsadura horretan daukan eraginaz jabetzea

Jarduera nola landu:

Bideoa ikusi behar da lehendabizi. Gela batean, denbora berdinean, kamioi baten diesel motorrak eta erretako zigarroek eragindako kutsaduraz ari da bideoa.

Pausako pantaila arte ikustea gomendatzen dugu. Une horretan, geldiarazi erreprodukzioa, eta galdetu ikasleei haien ustez zer gertatuko den. Zerk kutsatuko du gehien, kamioiak ala zigarroek?

Utzi ikasleei hitz egiten eta eztabaidatzen eta, ondoren, ikusi probaren emaitza zein den: zigarroak erretzeak PM_{2.5} partikula arriskutsu gehiago eragiten ditu kamioiak baino. Sinesgaitza dirudi, baina hala da. Emaitzen arabera, kaltegarriagoa da erretzen ari den norbaiten alboan egotea, kamioi baten alboan egotea baino.

Eztabaidatzeko gaiak

- **Zer dira PM_{2.5} partikulak?** 2,5 mikratik beherako partikulak dira
- **Zergatik dira arriskutsuak?** Hain txikiak izanda, biriketako alboetara ere sartzen direlako, eta betiko kaltetzen dituztelako.

<https://www.ecologistasenaccion.org/17842/que-son-las-pm25-y-como-afectan-a-nuestra-salud/>

- **Arriskutsua al da tabakoaren kea arnastea?** Nahiz norberak erre ez, erretzen ari den norbaiten ondoan edo gela berean egonez gero, berdin-berdin inhalatzen dira partikulak, eta birrikak betiko kaltetzen dira. Ez dago partikula horiek geldiaraziko dituen airea iragazteko sistemarik. Hain arinak direnez, airean zintzilik geratzen dira denbora askoan, baten batek arnasteko zain.

<https://www.blog.formacionalcala.es/2017/04/12/la-contaminacion-el-tabaco/>

- **Zer egin dezakegu guk?** Argi dago: tabakoaren keari ihes egin behar diogu, ez erre, inondik ere. Gure osasunaren mesederako izango da.